

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 82/2018 FORU DEKRETUA, ekainaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren Egitura Organikoari Buruzko Erregelamendua onesten duen 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretua.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretuaren bidez, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onetsi zen.

Orain, Sailaren egitura organikoa aldatu behar da, Arkitekturaren eta Zerbitzu Teknikoen Zerbitzuari dagokionez.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 14. eta 17. artikuluek eskumena ematen diote Bizkaiko Foru Aldundiari bere sailen egitura organikoa eta antolaketako barne-erregelamenduak onetsi ditzan.

Foru arau beraren 60. artikulua xedatzen duenaren arabera, Foru Aldundiari dagokio, kasuan kasuko foru diputatuak proposamena eginda, sail bakoitzaren egitura organikoa eta erregelamendu organikoak onestea, foru dekretu bidez.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean daude jasota eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da). Halaber, dekretu honen 14. artikuluan ezarritakoarekin bat, txosten egokiak egin dira.

Bestalde, foru diputatuen eskumena da, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaien buruzko dekretuen proiektuak onar ditzan, hain zuzen ere, hori xedatzen baitu Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k artikulua.

Horrenbestez, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak proposatuta eta Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 26ko bileran aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. — Aldatu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretua, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoaren erregelamendua onartzen duena

Aldatu egiten da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko maiatzaren 10eko 86/2016 Foru Dekretua, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoaren erregelamendua onartzen duena, honen arabera aldatu ere:

Bat. Honela geratzen da idatzita 62. artikulua:

«62. artikulua. — *Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzua*»

1. Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzuari dagokio Bizkaiko Foru Aldundiaren arkitektura, hirigintza eta diseinuari buruzko proiektuak, azterketak eta txostenak egin eta betearazteko aholkularitza teknikoa ematea eta kudeatzea. Era berean, bere ardurapean lan hauek egongo dira: foru eraikinei dagokie-



nez, laguntza teknikoa ematea, mantentzea eta zaintzea, eta mantentzeari zein energia-hornidurei buruzko kontratu zentralizatuak eta esparru-akordioak kudeatzea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea.

2. Horretarako, honako eginkizun hauek beteko ditu:
 - a) Arkitektura, hirigintza eta diseinuarekin zerikusia duten berrikuntza eta oin berriko azterketa, proposamen, proiektu eta obretan aholkuak ematea; haiek egin, zuzendu eta kudeatzea, eta indarrean dagoen arautegi teknikoa betetzen dutela kontrolatzea.
 - b) Aholkularitza teknikoa eskaintzea ondasun higiezinak erosterakoan, eta egokitasun- edo homologazio-proposamenak egitea ondasun higigarriak edo eraikuntzako gaiak eta abar erosterakoan.
 - c) Esleitutako kontratuen urteko kontratazio-plana egitea.
 - d) Arkitektura, hirigintza eta diseinuarekin zerikusia duten obra, ondasun-erosketa, aholkularitza eta zerbitzuen inguruko kontratuen oinarri teknikoen agiriak egitea eta kontratuak izapidetu eta kontrolatzea.
 - e) Zentralizatutzat jotako obra- , zerbitzu- eta hornidura-kontratuen oinarri teknikoen agiriak egin eta kontratu horiek izapidetu eta kontrolatzea kontratuen xedea mantentzea edo energia-hornidurak direnean.
 - f) Kontratazio Zentralarekin koordinatzea Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretuan jasotako kontratu zentralizatuen kasuan.
 - g) Arkitektura, hirigintza eta diseinuaren arloetan, sailari aurkeztutako errekerimenduen alderdi teknikoei buruzko txostenak egitea. Halaber, higiezin guzti gorabeherako balioztatze eta tasazioei buruzko txostenak egitea, eraikinak mantentzeko barneko arau teknikoak idaztea eta arau horiek betetzen direla kontrolatzea.
 - h) Aldundiko Segurtasun eta Osasun Batzordeari eta Irisgarritasuna Sustatzeko Batzordeari aholkularitza ematea, bai eta sailen arteko lan-taldeetan parte hartzea ere aholkularitza teknikoa emateko.
 - i) Foru eraikinei dagokienez, laguntza teknikoa ematea, mantentzea eta zaintzea. Horrez gain, sail guztiekin koordinatzea mantentze-zerbitzu integrala egoki emateko.

3. Dagozkion eginkizunak betetzeko, Arkitektura, Mantentze Lanak eta Zerbitzu Teknikoak Bideratzeko Zerbitzuak atal hauek izango ditu: Mantentze Lanak Bideratzeko I., II. eta III. Atalak eta Arkitektura Atala.

62 bis artikulua. — *Arkitektura Atala*

Arkitektura Atalak honako eskumen hauek izango ditu, besteak beste:

- a) Berritzeko, egokitzeko edo oin berriko obrak egiteko proiektuak, proiektu baten proiektu partzialak edo zati osagarriak edo bestelako proiektu teknikoak (proiektuaren egilearekin koordinatuta) idazteko irizpide orokorrak ezartzea, diseinua egitea eta proiektuak zehaztea zerbitzuko burutzarekin bat, dagokion araudi teknikoaren eta hirigintzako araudiaren arabera.
- b) Berritzeko, egokitzeko edo oin berriko obren zuzendaritza-lanak ikuskatzea eta haien jarraipena egitea alderdi teknikoei, estetikoei, hirigintzako alderdiei eta ingurumen arlokoiei dagokienez, kasuan kasuko proiektuarekin, eraikuntza-lizentziarekin, nahitaezko baimenekin eta kontratuaren baldintzekin bat, lanak helburuetara egokitzen direla ziurtatzeko.
- c) Aholkularitza teknikoa eskaintzea ondasun higiezinak erosterakoan, eta egokitasun- edo homologazio-proposamenak egitea ondasun higigarriak edo eraikuntzako gaiak eta abar erosterakoan.



- d) Arkitektura, hirigintza eta diseinuarekin zerikusia duten obra, ondasun-erosketa, aholkularitza eta zerbitzuen inguruko kontratuen oinarri teknikoen agiriak egiteko laguntza eta lankidetzaren ematea.
- e) Arkitektura, hirigintza eta diseinuaren arloetan, sailari aurkeztutako administrazio-errekerimenduen alderdi teknikoei buruzko txostenak egitea. Halaber, higiezin gutxi gorabeherako balioztatze eta tasazioei buruzko txostenak egitea, eraikinak mantentzeko barneko arau teknikoak idaztea eta arau horiek betetzen direla kontrolatzea.
- f) Aurreko letretan aipatutako antzeko lan teknikoak egiteko langile tekniko kualifikaturik ez duten sailei aholkularitza ematea modu subsidiarioan.

Bi. Honela geratzen da idatzita 63. artikulua:

63. artikulua. — *Mantentze Lanak Bideratzeko I., II. eta III. Atalak*

Mantentze Lanak Bideratzeko I., II. eta III. Atalek honako eskumen hauek izango dituzte, besteak beste:

- a) Une bakoitzean esleituta dauzkan Foru Aldundiaren eraikin, bulego eta instalazioen ohiko kontserbazioari eta konponketei, mantentzeari eta erabilerari dagozkion neurriak hartzea, eta haietan jardueraren funtzionamendua normala dela ziurtatzeko behar diren zerbitzuak eta ondasunak jartzea.
- b) Eraikin eta instalazioen mantentze eta funtzionamenduari buruzko kontratuen kudeaketa, auditoria eta jarraipena egitea.
- c) Instalazio teknikoak jarri edo aldatzeko kontratatzen diren kanpoko zerbitzu guztien kontratazioan oinarri teknikoen orriak egiten laguntzea, aholku ematea, zerbitzu horiek antolatzea eta kontrolatzea egiten direla.
- d) Materialaren, makina txikien eta altzarien biltegitratzeekin eta instalazio eta eraikinak mantentzeko diren segurtasun-sistemekin zerikusia duten gaiak kudeatzea.
- e) Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari jakinaraztea prebentzio arloan eragina duten mantentze-lanak direla-eta egiten diren ekintza guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengo Azken Xedapena

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko ekainaren 26an.

Herri Administrazioarako
eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ